

Udalbatzarrak onartua 1993.10.08an

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRA.

1. Artikulua.

Udal eskumenaren eremuan, Arrasateko udalerriko baserri auzoetako argiteria publikoaren zerbitzua erregulatzea dute helburu irizpide hauek, eta argiteriarekin doazen elementuetako bakoitza jartzeko egon behar diren baldintzak adieraztea ere bai.

Baserri auzoetan argiteriaren helburu nagusiak, lehentasunezko ordenan aipatuak:

- 1.- Iristeko bidea edo errepidea argitzea.
- 2.- Eraikina seinalatzea.
- 3.- Eraikineko sarrera nagusia argitzea.

I. KAPITULUA - ELEMENTUAK.

2. Artikulua.

Arrasateko Udalak organo aginpideduna izango da Arrasateko baserri auzoetan argiteria publikoarekin batera doazen elementuak jarri, mantendu eta kentzeko, sortu berri diren etxebizitza bateko etxeetakoak izan ezik, izan ere, argi puntuak titularren kontura joango dira; Arrasateko udalaren kontura joango dira geroago jar daitezkeen argi puntuak jarri eta mantentzea.

3. Artikulua.

Baserri auzoetako argiteria publikoarekin batera doazen elementuak argipuntua eta farolak izango dira.

4. Artikulua.

Baserri auzoetako argiteria publikoarekin batera doazen elementuak jartzearena partikular bakoitzak eskatu beharko du.

Lehen sekzioa – Argi puntuak -

5. Artikulua.

1. Argi puntuak Arrasateko Udalak jarriko ditu baserri edo eraikinetako sarbideak argitzeko, baldin eta, ohiko helbidea izan eta baserri auzoko nukleo nagusitik aparte egonik, kanpoaldea argiztapen publikoa ez badute.

2. Argi puntu bat jarriko da eskatzen duen baserri edo eraikin bakoitzeko, 5.1. artikuluko baldintzak betetzen badira, berdin dio zenbat diren baserriko edo eraikineko etxebizitzak.

3. Eraikin adosatuen kasuan, argi puntu bat jarri ahal izango da eraikineko.

6. Artikulua.

1. Udalak berak jarrita edo baimendutako argi puntuak direnean, 5. artikuluan eskatzen diren baldintzak betetzen direnean, Arrasateko Udalak subentzionatuko du energia kontsumoa.

2. Argi puntuen energia elektrikoaren kontsumoari dagokion dirulaguntza kenduko du Udalak, edozein arrazoiengatik 5.1 artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzen ez direnean.

Bigarren sekzioa - Farolak-

7. Artikulua.

Arrasateko Udalak jarriko ditu farolak baserri auzoko nukleoa edo eraikin multzo txiki batzuk argitzeko.

8. Artikulua.

Auzoko nukleo nagusitik urrun dauden etxebizitza multzo txikietara iristeko bidea argituko da, sarbide hori argitzeko behar diren luminarien kopurua eta azpinukleoa bera eraikinetan jarri behar diren argi puntuen kopurua baino txikiagoa denean edo kopuru berdina denean.

Hirugarren sekzioa -Funtzionamendua-

9. Artikulua.

Arrasateko Udalak jarriko ditu baserri auzoetan argiteria publikoari dagozkion elementuak pizteko sistemak.

10. Artikulua.

Irizpide hauetako beste agindu batzuetan xedatzen denaren kalterik gabe, baserri auzoetan argiteria publikoari dagozkion elementuak hauengatik kendu ahal izango dira:

- a) Horiek jartzeko behar diren ingurumariak desagertu direlako.
- b) Eskatzaileak berariaz eta idatziz uko egin diolako.
- c) Udaleko Zerbitzu Teknikoen txostena, non-eta agertu behar den onuradunek luminaria txarto erabiltzen dutela.